

3.3.4. UDAL-AREAK.

EKONOMIA LOKAL IRAUNKORRA. TURISMOA.

JARDUERA NAGUSIAK

TURISMOKO PLAN ESTRATEGIKOA

Hiriko turismoari buruzko plan estrategikoa garatu da 2017an, etorkizuneko politika eta inbertsio publikoak zuzendu behar dituzten ikuspegia eta ildo estrategikoak garatzeko, eta horietan oinarrituta, epe laburrerako esparru operatiboa zehaztu ahal izan dadin, gobernamendu eta kudeaketaren arloko gaiak zein turismo-produktua garatzearenak bereziki nabarmenduta.

Plan estrategikoak bultzatzen duen hiriko turismo-garapenerako ereduak Iruñeko errealitatean txertatu behar du turismo-jarduera, eta sektorearen eta herritarren arteko elkarrizketa izan behar da horretarako lanaren zutabeetako bat. Sektore osoak parte hartuta zehaztutako helburu estrategikoetan oinarritzen da garapena, honako hauetan zehazki: turismo jasangarria garatzea, haren hiru alderdiak aintzat hartuta (ekonomia, ingurumena eta gizartea); Iruñeko turismo-eredua definitzea, bai helmuga beregain gisa, bai Nafarroako turismoaren irudi orokorraren barnean; Iruñeari nortasun bereizia ematea, berezko nortasun-ezaugarrietan oinarrituta; gobernamenduaren zein lankidetzako publiko eta pribatuaren mailak hobetzea; baliabideen eta produktuen kudeaketa optimizatzea; eta hiriko okupazioa eta gastua handitzea.

Ekintza-lerroak honako alderdi hauei lotutako bost lan-programatan banatuta daude: gobernamendua, helmuga egituratzea, helmugako informazioa, jasangarritasuna eta produktua. Plan Estrategikoaren barruan Sanferminak sanferminetatik kanpo izeneko azterketa egin da sanferminei lotutako produktu bat abian jartzeko.

TURISMOKO MARKETIN-PLANA

Turismoko marketin eta marka berriaren plana egin da 2017an, hiriaren bestelako turismo-kontakizun bat duena. Pertsonak jartzen ditugu Iruñeko Turismoko estrategiaren kontzeptu nagusi eta ardatzean, haiek baitira hiriaren balio nagusia. Pertsonak eta horien adeitasun, hurbiltasun eta egiazkotasunak egiten dute Iruña hiri berezi. Beraz, markaren helburua izanen da Iruñearen alderik gizatiarrena transmititzea.

HELMUGA EGITURATZEKO PROGRAMAK

UDAL-ESKUMENEKO TURISMOARI BURUZKO ARAUDIA GARATZEA

2017ko urrian, turismo-ostatuen eta egoiliarren arteko harremanaren arteko azterketa bat egin zen hirian, bertan zer-nolako turismo-presio dagoen zehazteko, eta haren garapenak hirian izanen lituzkeen eraginak kudeatzeko. Hirigintzako alorrarekin koordinazio-lana egin zen Udala Plana eta Alde Zaharreko Babes eta Barne Eraberritzeko Plan Berezia aldatzeko proposamena garatzeko.

IRISGARITASUN INTEGRALA SUSTATZEA

Turismo-seinaleak: seinale eredu berri bat jartzea, ohiko seinale fisikoak eta turismo-aplikazio geokodetua uztartuta, irisgarritasuna ardatz hartuta. «Harresien ibilbidea eta Donejakue Bidea» garatu da.

Jacob@ccessProiektua, irisgarritasun-sistema integrala garatzeko. Sistema hori lantzen ari gara «Ultreia» Donejakue Bidea ezagutzeko zentroa irekitzeari begira.

AUTOKARABANENDAKO EREMUA

2017ko uztaillean Trinitarioseko eremua ireki zen autokarabanendako. Eremu honek % 38,67ko batez besteko okupazioa izan du, eta abuztuan eduki du okupazio handiena, % 72,34 batez beste.

	BILKETA			ERAGIKETAK			TOKIAK: 33
	TELPARK	KUTXAZAINAK + TC	GUZTIRA	TELPARK	KUTXAZAINAK + TC	GUZTIRA	OKUPAZIOA
UZTAILA	52	4.100	4.152		280	280	31,42%
ABUZTUA	72	6.698	6.770		740	740	72,34%
IRAILA	80	4.450	4.530		459	459	44,87%
URRIA	64	3.812	3.876		375	375	36,66%
AZAROA	40	2.030	2.070		204	204	19,94%
ABENDUA	46	2.744	2.790	7	267	274	26,78%
GUZTIRA 2017	354	23.834	24.188	7	2.325	2.332	

TURISMO-ENPRESENDAKO LAGUNTZAK

2017an turismoko sei erakundek Udalaren diru-laguntza jaso dute Iruñeko hiria turismo-helmuga gisa sustatzeko ekintzak egin zitzaizaten (52.299,63 euro guztira, 60.000 euroko hasierako partidatik). Guztira 23 jarduera egin dituzte.

TURISMOA DINAMIZATU ETA SUSTATZEKO KANPAINAK

CREACITY

Iruñearen, Baionaren eta Hondarribiaren arteko mugaz gaindiko lankidetzarako Creacity proiektuaren barruan, turismo-programazioko zenbait proposamen egin dira. Honako hauek nabarmentzen dira:

- Hondarribian Ondareen Foroan parte hartzea Creacity proiektuaren inguruko esperientziak eztabaidatu eta partekatzeko. Maiatzak 4-6.
- Urdaiazpikoaren Azokan (Foire au Jambon 2017) parte hartzea Baionan, 2017ko apirilaren 14, 15 eta 16an. Hiru hiri bazkideek –Baiona, Hondarribia eta Iruñeak– parte hartu zuten, hiri bakoitzeko produktu gastronomikoen bitartez.
- Harresietako jaialdia (abuztuaren 3tik 23ra): Harresia kandelaren argitan 2017; milaka kandelak argizatutako ibilbidea, zuzeneko kontzertuekin eta ostalaritzako postuekin, Nafarroa JDko pintxoak eta edariak dastatzeko; Abesbatzak San Bartolomeko gotorlekuan: abuztuko igandeetan (6, 13 eta 20) Baionako abesbatza batek eta Iruñeko bik parte hartu dute Creacity adiskidetzeko eta baterako laneko jardueren barruan.
- Kreanta Sormen Hiriak programaren aurkezpena. Creacity: «Hondarribia-Baiona-Iruñea mugaz gaindiko eskualdeko ondare gotortuaren balorizazioa» Sormen Hirien Nazioarteko Jardunaldietan, Irunen, 2017ko urriaren 18-20an.
- Hiru hiriek parte hartzea Europako Bidaia Kaieren azokarik garrantzitsuenean, Clermont-Ferranden (Frantzia). Azaroaren 17tik 19ra. Bidaia-kaieraren aurkezpena: «Bazen behin... hiru hiri eta harresi bat».
- Bidaia Kaieraren aurkezpena 948 Merkatua azokaren barruan. Azaroaren 17an autobus-geltoki zaharrean (Geltoki).
- Abenduaren 6tik 10era, Durangoko Liburu eta Disko Azokan egonen da Bidaia Kaiera.

PAMPLONA IRUÑA CARD

Hiriko turismo-zerbitzuen eskaintza osoa biltzeko helburuarekin ateratako turismo-txartela. 2017ko abenduan 20 saltoki daude bat eginda: turismo-ekitaldien 5 gune, 6 saltoki eta gidatutako bisiten 9 enpresa eta bidaia-agentzia hartzaile.

ARDO- ETA GAZTA-DASTATZEAK

Ardo-dastatzeen hamaikagarren edizioa izan da 2017an. Guztira, 9 ardo-dastatze izan dira (360 pertsonak parte hartuta), Reyno Gourmet marka, kontseilu arautzaile eta parte hartzen duten upategiekin lankidetzan. Aurten, abuztuan, olio-dastatzeen hirugarren edizioa ere egin da. 120 lagunek parte hartu dute.

TURISMOKO INFORMAZIO-ZERBITZUAK

Turismo-bulegoaren lizitazio berria, langile gehiagorekin, hiriko sektorearekiko harremana areagotu eta emandako informazioa hobetzeko. Lizitazio horren barruan San Bartolomeko gotorlekuaren kudeaketa ere sartuko da; turismo-informaziogunea izanen da 2018tik aurrera

TURISMO-BULEGOA

2017an 142.108 turistari eman zaie arreta (2016an baino % 9,7 gutxiago) 58.055 kudeaketatik gora izan dira (aurreko urtean baino % 8,8 gutxiago). Estatukoak dira artatutako gehienak, gehienbat Katalunia (16.356 bisitari) eta Madrilgoak (15.658 bisitari). Nafarroako Foru Komunitateko turisten kopurua nabarmentzen da berriz; 10.621 izan dira 2017an. Hala, 2017an Estatuko turistak guztien % 62,8 izan dira, 2016ko ehunekoa baino 1,3 puntu gutxiago, hortaz.

BISITARIAK, GUZTIRA	2017	2016	%	2015
Estatukoak	89.206	100.976	- 11,7 %	82.179
Atzerritarrak	52.902	65.378	-19,1 %	51.769
Arreta eskaini zaien turista kopurua	142.108	157.354	- 9,7 %	133.948
Zenbat jarduketa egin diren	58.055	63.655	- 8,8 %	49.904

ESTATUA	HELMUGA	JATORRIA	
Jatorria	Eskatzailea	Eskariak	Eskatz.=Eskar.
A Coruña	963	304	16
Araba	1270	477	42
Albacete	716	184	9
Alicante	2649	816	36
Almería	495	126	11
Asturias	1657	487	20
Ávila	344	79	2
Badajoz	488	169	7
Barcelona	12515	4219	191
Burgos	1023	325	11
Cáceres	438	122	3
Cádiz	817	258	9

Kantabria	809	299	15
Castelló	1061	386	19
Ceuta	17	7	
Ciudad Real	493	169	6
Kordoba	821	223	14
Cuenca	430	109	3
Girona	1436	424	22
Granada	999	301	16
Guadalajara	645	183	4
Gipuzkoa	2630	1029	109
Huelva	247	65	3
Huesca	556	215	12
Balear Uharteak	840	251	11
Kanaria uharteak	1214	382	14
Jaén	501	188	12
Errioxa	970	380	40
León	531	219	5
Lleida	978	297	15
Lugo	159	73	3
Madril	15658	4823	353
Málaga	1619	379	20
Melilla	27	9	
Murtzia	1993	533	26
Nafarroa	10563	6949	1377
Ourense	160	72	2
Bestelakoak	51	2	42
Palentzia	281	108	2
Pontevedra	343	143	6
Salamanca	616	200	9
Segovia	422	120	8
Sevilla	2118	559	40

Soria	403	106	3
Tarragona	1427	444	16
Teruel	345	142	3
Toledo	1080	273	12
Valentzia	6043	1887	63
Valladolid	1087	345	12
Bizkaia	3550	1257	120
Zamora	234	64	2
Zaragoza	2472	834	49
SUBTOTALA	89206	32015	2846

NAZIOARTEKOAK	HELMUGA		JATORRIA
Jatorria	Eskatzailea	Eskariak	Eskatz.=Eskar.
Alemania	5193	2062	18
Andorra	86	36	
Argentina	2333	1040	6
Australia	1591	726	1
Austria	308	122	1
Belgika	1100	488	8
Brasil	494	260	4
Kanada	826	470	4
Txile	305	138	
Txina	190	117	2
Kolonbia	405	178	1
Korea	565	292	
Danimarka	258	129	1
Estados Unidos de			
AMERIKAKO ESTATU BATUAK	4489	2032	20
Frantzia	16649	6626	203
Grezia	93	32	

Herbehereak	2686	1144	6
Hungaria	83	56	
India	41	18	1
Irlanda	861	405	4
Israel	253	101	
Italia	4110	1776	37
Japonia	660	359	4
Mexiko	661	328	3
Zeelanda Berria	191	114	
Bestelakoak	2	1	1
Europako	533	264	1
Polonia	404	212	1
Portugal	621	214	1
Erresuma Batua	3419	1618	26
Txekiar Errepublika	224	60	
Afrikako	44	29	
Amerikako gainerakoak	663	311	2
Asiako gainerakoak	296	106	1
Europako	831	297	1
Ozeaniako gainerakoak	4	2	
Errusia	361	134	2
Hegoafrika	118	67	
Suitza	475	265	
Turkia	58	17	
Ukraina	50	20	
Uruguai	207	89	1
Venezuela	163	77	1
SUBTOTALA	52902	22832	362

̄DONEJAKUE BIDEKO ERROMESAK HARTZEKO ZERBITZUAK

JESUS ETA MARIAREN ATERPETXEA

Jesus eta Mariaren aterpetxea (Compañía kalea 4) 2007an ireki zuten. Aspace Fundazioak kudeatzen du, eta 112 toki eskaintzen ditu

Jesus eta Maria erromesen aterpetxea	
Urtea	Erromes kopurua
2013	21.555
2014	20.890
2015	20.534
2016	20.198
2017	20.208

PADERBORNEKO ERROMESEN ATERPETXEA

Halaber, beste aterpetxe bat ere badago 2006tik aurrera, Donejakue Bidearen Lagunen Elkar-tea-Paderborneko Donejakue Ermandadearekin egindako lankidetzaz-hitzarmenaren bidez kudeatutakoa. Horretarako bigarren hitzarmena, gehienez bost urtekoa, aurten sinatuko da. 2017an 5.042 erromes ostatu dira aterpetxe honetan.

̄HARRESIEN INTERPRETAZIO-ZENTROA

Iruñeko Gotorlekuen Interpretazio Zentroa / San Bartolomeko Gotorlekua 4.010 pertsonak bisitatu dute 2017an; % 38 gehiago, alegia. Instalazio horretara abuztuan joan da pertsona gehien (793), eta gutxien, urtarilean (92). Bisitarien % 69,5 espainiar nazionalitatekoak dira; Nafarroatik bertatik eta Madril eta Bartzelonatik etorri dira gehienbat. Aurten, nazioartetik etorritakoen artean, kopuru handiena estatubatuarrena izan da, etorritako 1.223en % 6,8 izan dira, eta, ondoren, frantsesak (% 3,59) eta alemaniarak (% 3,27).

Interpretazio-zentroa	
Urtea	Bisitari kopurua
2013	3.461
2014	3.921
2015	3.476
2016	2.602
2017	4.010